

**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK**  
**FILOSOFIAKO AZTERKETA**  
**2007/2008 IKASTURTEA**

**JARRAIBIDEAK:**

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.  
 Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

**A AUKERA: PLATON**

- Horrela da, ene adiskidea: gobernatu behar dutenenei aurkitu badiezu gobernatzea baino bizimodu hoberik, ongi gobernatutako Estatua espero ahal izanen duzu; horrelakoan bakarrik gobernatzen baitute benetako aberatsek, ez urretan aberatsek, baizik eta zorion iturri den aberastasuna dutenek, alegia: bizimodu bertutetsu eta jakintsukoek. Ez da hori gertatzen, ordea, eskaleek eta ondasun pribatuen beharrean daudenek gai publikoak mendean dauzkaten tokietan, han ongiaz jabetuko direla sinetsita; izan ere, gobernua tirabiren zergati bihurtzen denean, etxekoen arteko horrelako barne gerra batek denak galtzen ditu, baita Estatua beste guztia ere.
- Ez da egia biribilagorik.
- Eta ezagutzen al duzu beste bizimoduren bat, benetako filosofiarena ez beste, aginte politikoa gutxiestera eramaten duenik?
- Ez, ba, Zeusen izenean.
- **Beharrezkoa da, hortaz, gobernuarekin maiteminduta daudenei bide ez ematea gobernuan sartzeko**; bestela, erasoko dieten etsaiak agertuko dira.
- Dударik gabe.
- Horrela bada, emanen al zenieke Estatuaren zaintza beste batzuei, Estatuaren gobernurako argienak izan eta Estatu agintariarenak baino beste ohore batzuk eta bizimodu hobea nahiago dutenei eman beharrean?
- Ez, beste inori ez.
- Nahi al duzu orain aztertzea nola prestatuko diren gizon horiek, eta **nola goratuko dituzten argirantz**, Hadesengandik jainkoenganaino igo diren batzuek esaten duten bezala?
- Nola ez dut, ba, nahiko?
- Baina hau, nire ustez, ez da maskorrari bira ematea bezala, baizik eta arima gau egun batetik benetako beste egun batera bihurtzea; hau da, den horretarantz doan gorako bide bat, eta bide horri **filosofia** deitzen diogu zuzen. (Platon: *Errepublika*).

<b>1. Laburpena eta definizioak</b>	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopia <span style="font-variant: small-caps;">t</span> u gabe.	
b) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>beharrezkoa da, hortaz, gobernuarekin maiteminduta daudenei bide ez ematea gobernuan sartzeko</i>	(0,75 puntu)
c) Zer esan nahi du <i>nola goratuko dituzte argirantz</i> esaldiak?	(0,75 puntu)
d) Zer da <i>Filosofia</i> Platonentzat?	(0,75 puntu)
<b>2. Garatu gai hau:</b> Estatuaren gobernu moduak eta gizartea Platonen arabera.	(3 puntu)
<b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b>	(3 puntu)
a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa	(Puntu 1)
b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo bat(zu)ek horri buruz esan du(t)enarekin. (Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

OHARRA. Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gaitantolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK**  
**FILOSOFIAKO AZTERKETA**  
**2007/2008 IKASTURTEA**

**JARRAIBIDEAK:**

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.

Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

**B AUKERA: MARX**

Lana egitea langilearen desegitea bezala agertzen zaigu, eta **langilearen desegite hori ahuleziagatik heriotzaraino irits daiteke**. Objektibazioa objektuaren galera bezala agertzen da, eta langileari bizitzeko objektuak eta horiez gain lan egitekoak ere kendu egiten zaizkio. Are gehiago, lana bera ahalegin handienarekin eta etendura apartekoenekin soilik lor daitekeen objektu bihurtzen da. Halatan, objektuaren jabetza arrotz gertatzen zaigu, eta zenbat eta objektu gehiago produzitu langileak orduan eta gutxiagoren jabe da, eta bere produktuaren domeinuaren menpe geratzen da, hots, kapitalaren menpe.

Ondorio hauek guztiak langilea *bere lanaren produktuarekin* objektu **arrotz** batekin bezala erlazionatzeak determinatzen du. Suposamendu honetan oinarrituz, begibistakoa da langilea zenbat eta gehiago jarri bere lanera orduan eta boteretsuagoa dela mundu arrotza, bere aurrean sortzen duen helburua, eta zenbat eta pobregoa izan bera eta bere barne mundua orduan eta bere buruaren jabetza txikiagoa du. Gauza bera gertatzen da erlijioan. **Zenbat eta gehiago jartzen duen gizakiak Jainkoarengan orduan eta gutxiago gordetzen du berarentzat**. Langileak bere bizitza objektuan jartzen du baina ordutik aurrera ez da berarena, baizik eta objektuarena. Zenbat eta aktibitate handiagoa orduan eta objektu gutxiagoren jabe da langilea. Bere lanaren emaitza dena ez da bera. Orduan, zenbat eta handiagoa izan produktu hau orduan eta baliogabeagoa da langilea. Langilearen *enajenazioa* bere produktuan ez da soilik haren lana objektu bihurtzen dela, *kanpoko* izate batean, baizik eta *berarengandik kanpo* existitzen dela, independenteki, arrotz, bere aurkako botere independente bihurtzen dela; objektuari eman dion bizitza gauza arrotz eta kontrako gisa agertzen zaiola. (Marx: *Eskuizkribuak: Ekonomia eta filosofia*)

<b>1. Laburpena eta definizioak</b>	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>langilearen desegite hori ahuleziagatik heriotzaraino irits daiteke</i>	(0,75 puntu)
c) Zer esan nahi du <i>arrotz</i> terminoak terminologia marxistan?	(0,75 puntu)
d) Azaldu esaldi hau: <i>zenbat eta gehiago jartzen duen gizakiak Jainkoarengan orduan eta gutxiago gordetzen du berarentzat</i> .	(0,75 puntu)
<b>2. Garatu gai hau:</b> alienazioaren teoria eta enajenazio-motak Marxen arabera.	(3 puntu)
<b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b>	(Guztira: 3 puntu)
a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa	(puntu 1)
b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo bat(zu)ek horri buruz esan du(t)enarekin. (Funtsezkoa da beste egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe eta aurreko galderetan garaturikoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

OHARRA. Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK**  
**FILOSOFIAKO AZTERKETA**  
**2007/2008 IKASTURTEA**

**JARRAIBIDEAK:**

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.  
Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

**C AUKERA: NIETZSCHE**

Dagoeneko igarri bide zaio zeinen aise apaizen balioespen-era saihets daitekeen zaldun-aristokratikoarenetik, gero haren antitesi bihurtzeko; horretarako bereziki bultza egiten duen egokiera bat izaten da, apaizen kastak eta gerrarien kastak zeluengatik elkarrekin tupust egiten duten bakoitzean eta ados jarri nahi ez dutenean ordaindu beharreko prezioan. Balio-judizio **zaldun-aristokratikoek** erakuntza fisiko ahaltsua, osasun jori, aberats eta gainezkatua ere badute auresuposatutzat, horri eusteak baldintzatzen duenarekin batera, hau da, gerra, abenturak, ehiza, dantza, gudu-jokoak eta, oro har, jarduera indartsu, aske, pozkariotsuak berekin duen guztiarekin. **Nagusi-apaizen** balioesteko erak -dagoeneko ikusia dugu- beste auresupostu batzuk ditu: gauzak oso gaizki doazkie gerra agertzen denean! Apaizak, jakina denez, “etsairik gaiztoenak” dira. Zergatik? Ezinduenak direlako. Ezintasun horrengatik gorrotoa hazi egiten zaie beren baitan zerbait desarauzko eta makur bihurtu arte, izpiritual eta pozoitsu. Historia unibertsaleko gorrotatzailerik handienak, baita gorrotatzaile izpirituz aberatsenak ere, apaizak izan dira beti – apaiz-mendekuaren izpirituarekin alderatuta, beste edozein izpiritu ez da ia kontuan hartzekoa. **Giza historia gauza ergelegia izango litzateke ezinduek hartan sartu duten izpiritua gabe.** (*Nietzsche: Moralaren genealogia*).

<p><b>1. Laburpena eta definizioak</b></p> <p>a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.</p> <p>b) Nori buruz ari da Nietzsche <i>zaldun-aristokratikoei</i> buruz ari denean?</p> <p>c) Nor dira <i>nagusi-apaizak</i>?</p> <p>d) Azaldu esaldi hau: <i>Giza historia gauza ergelegia izango litzateke ezinduek hartan sartu duten izpiritua gabe.</i></p>	<p>(Guztira: 3 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p>
<p><b>2. Garatu gai hau:</b> Nietzscheren balioak eta moral berria.</p>	<p>(3 puntu)</p>
<p><b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b></p> <p>a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa</p> <p>b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo bat(zu)ek horri buruz esan du(t)enarekin.</p> <p>(Funtsezkoa da beste autore batekin edo birekin alderatzea, guzti-guztiak azaldu gabe eta aurreko galderetan garaturikoa errepikatu gabe)</p>	<p>(Guztira: 3 puntu)</p> <p>(2 Puntu)</p> <p>(2 puntu)</p>

**OHARRA:** Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.